

# noaua



**Ikastetxeak,  
matrikulazio garaian**

**Larunbat honetan  
“Bidaide” antzezlanaren  
Sutegin**

**Zabalik da  
sagardotegien  
denboraldi berria,  
“Merezi dugulako!”  
aldarripean**



**JOLASA OSASUNA DA!**

**HAURREN AURKAKO DEBEKU GEHIAGORIK EZ**

**Osasunaren alde,  
Eskola Kirolaren defentsan**



# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



## LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzak 1era  
TXOTX-GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan  
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com)



## ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

## SAIZAR

Sagardotegia

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



943 37 39 95

## SAGARDOTEGIA aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
astelehenetan itxita

osasan neurri guztiekin

Tfn-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagasagardotegia.com  
[www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

**ORDUTEGIA:**

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

AIALDE  
BERRI



## Albisteak iruditan

## Usurbil, airetik

Ondoko irudiak jolaserako aitzakia eskaintzen du. Satellite bidez Euskal Herriko kostaldeari ateratako argazkia duzue, Europar Batasuneko Lurraren Behaketako Programak, "Copernicus" delakoak ateratakoa, berriki sare sozialen bidez plazaratu duena. Lapurdi eta Gipuzkoako itsasertza ikus dezakezue airetik, baita lurraldean barneratuz gero geure inguruek duten erliebea.

Argazkia aldizkari honetara baldin badakarkigu Usurbili lotua dagoelako da noski. Ba al dakizue non den geure herria? Kokatuko al zenukete ondoko irudi honetan Usurbil? Begiratzen hasita trebetasun handia behar da bat-batean udalerrri hau aurkitzeko. Gipuzkoako hiriburuak dituen ezaugarri fisikoek lagun gaitzakete aurkikuntza lanean. Ezin esan ikusgarria ez denik. Ikusgarria eta



Twitterreko @CopernicusEU helbidean aurkitu dugu euskal kostaldearen ondoko irudia.

polita.

Munduko txoko ezberdinetako hainbat irudi aurki ditzakezue Twitterreko @Co-

pernicusEU helbidean; esaterako La Pal-mak egun duen itxura sumendia lehertu ostean.

## Laburrean

## Abenduko kopurua gainditua

Abendu osoan 386 kasu zenbatu zituen Osasun Sailak Usurbilen, urtarrileko lehen hamabostaldian 392. Gainerakoan, 5580,22tik 5548,51ra murriztu zen intzidentzia aste hasieran. 176 kasu zenbatu ziren iragan aste osoan.

## Dekretua, hilaren 28ra arte

Eusko Jaurlaritzaren dekretuak indarrean segiko du hilaren 28ra arte gutxienez eta neurriok beraz, besteak beste: %60ko edukiera muga gune itxietan, Eskola Kiroleko lehiaketak etenda, jardueren amaiera 1:00etan (garraio zerbitzua 2:00etan)...

## Positiboen kudeaketa

Covid19 positibo eta kontaktu zuzentzat nahiz baja online tramitatze-ko formularioak bateratzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Euskadi.eus atariko "Nola jokutzen dut?" atalean eskura daiteke.

# noaia

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatoria:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaia.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaia.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Usurbilgo Udala  
Euskal Herrira!



Alazne Arruti

Iturri zaharretik ur berria jaiotzeko, iturriak sor-tu eta zaindua behar du izan. Bidea egiteko, baten batek hasi behar du lehen pausuz berau urratzen. Eta ostean, baten batek jarraitu behar du honen ganean bere bide propioa marraztu eta garatzen. Horri guztiari esker bilakatu gara ondorengoak garena. Izan direlako baikara. Horretarako ezinbestekoa da esperientziak bildu eta haue-tatik ikastea. Eta azken urte bereziaren ostetik ere, izan dugu irakaspenik. Batek daki ordea, urte berriari hobeki edo errazago aurre egiteko baliatuko ote ditugun.

Gabonen zurrunbiloak irensten gaituen aldiro, eten-gabe kontsumitzera bultatzen gaituen gizarte eta jarrerak, gogor astintzen gaituzte guz-tioi. Gabonak, maitasunaren gorazarre eta abiadura betearen etenaldi baten baliokide izan daitezkeen arren, badute ardura eta neurritasunaren beharrik.

Neroni ere, estutu naiz. Inguruko pertsoneri, urtea amaitu aurretik, hau boro-biltzeko opari aproposen bat irudikatu nahian. Eta ohi bezala, azken unea heldu arte luzatu ditut erabakiak. Lanetik irten eta izerdi patsetan egin ditut, luzez pentsatutako erosketak gauzatzeko ibilbi-

## Baginen bagara



Emakumeen lana argitara emateaz gain, diskurtso, forma eta modu berritzaileak topa daitezke San Telmo museoko erakusketan.

### ALAZNE ARRUTI

**Artearen Historiak, emakumei aitortu ez dien hori guztiori salatzea du helburu 'Baginen Bagara' erakusketak**

de bizkorak. Eta hein batean, ezarritako erronka txiki bat betetzeko aukera ere izan dut. Bertakoan oinarritzen saiatu bainaiz. Inguruan ditugun denda eta sortzaileak babestu, eta behar luketen lehentasuna emanaz. Eta emandakoa baino adeitasun handiagoa jaso dudalakoan nago.

Dena den, opariak emateaz gain, jaso ere egin ditut. Eta horiei esker oroitu naiz, oparirik ederrenetarikoa, elkarri eskaini diezaioketuen denbora izan daitekeela. Aurrekoan esaterako, nire urtemuga ospatzeko, opari berezi ugari jaso nituen. Agian, adinez heldutu

ahala, gauza materialak albo batera utzi eta uneak gehiago balioztatzen ikasi dudalako izan daiteke. Eta ziurrenik, hau ez da soilik eta naturalki eman. Inguruan hau ulertu eta elikatu duten jende on ugari bildu izanak bereziki lagundu du horretan.

Honen adibide gisan, lagun pare berezi baten eskutik, due-la ez asko San Telmo museoan igaro dut arratsalde bat. Eta eurei esker, aspaldiko partez, arteaz eta arteak atzean ezkutatzen duenaz hausnartu eta sakontzen jarduteko aukera izan dut. Izan ere, 'Baginen Bagara' erakusketara gidatu ninduten ostegun arrunt bateko lanaldia amaitu ostean. Eta neure buruari, aspaldian eman ez nion tarte bat eskaini nion. Astiro eta elkarrekin, ohartzera museoko ateak itxi zizkiguten arte.

Erakusketa hau, bereziki

hurbila sentitu nuen gainera. Izan ere, Artearen Historiak, emakumei aitortu ez dien hori guztiori salatzea du helburu. Pintore, ehungile, zeramikagile, eskultore, ilustratzaile, jostun... sor-kuntza arlo ugarian jardunak izanagatik, isilduak izan dira luzaroan, emakume gisa deskribatu eta mugatuak. Eta bilduma honen bitartez, "emakumeen arazotzat" hartzen zen hutsune hori, "Artearen Historiaren arazoa" dela mahaigaineratu nahi da.

Emakumeen lana argitara emateaz gain, diskurtso, forma eta modu berritzaileak topa daitezke bertan. Izan den hori, bistaratzea, ez da, historiaren berrikuspen bat besterik. Eta urte luzez, emakumei esleitutako gai eta ereduaren aurrean, arrazoia gailentzea.

Horrela, loreak eta etxeko mahai hutsak, leihope zabal eta argi erreinu ederrak nagusitu ziren espazioan. Ahizpen arteko une eternalak. Gorputzen jarrera lasai eta apaingura gehigarriak behar ez zuten emakumeen, ordu-ra arte horren zintzoki irudikatu gabeko autorretratuak.

Eta etengabe izendatu eta gorpuztu zen bakardadea eta hutsunea. Mugen gainetik bizi grina eta norberaren esentzia gaindiezin bat.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
Patrikua  
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

## Ika-mika

## Jolasa osasuna da!

**E**usko Jaurlaritzak Eskola Kiroleko lehiaketak bertan behera uzteko aginduarekin ez gaudela ados adierazi nahi dugu. Erabaki honek, beste behin ere gazteenon kirol jardueran eragiten du, gaur egun bizi dugun egoerarekin oso koherentzia gutxikoa da, eta era gutzietako ondorio negatiiboak dakartza.

Pandemia guztian zehar,

azken bi urte luzeetan, alegia, protokolo zorrotzak jarraitu behar izan ditugu, burbuiletan banatuz, dutxa eta aldagelak erabili ezinik, 20-21 denboraldi osoa partidurik jolastu gabe... Eta hala ere egoera honen aurrean bikain erantzun dugula uste dugu. Kirol jarduera giro seguruan garatuz, kirolaz gozatzeko aukera izan dugu, inolako kalterik antzezman gabe.

Inork ez du zalantzan jar-

tzen jolasak eta jarduera fisikoak haur eta gazteen garapenean duen garrantzia. Aditu asko bat datoz gure garapenean mugimendua ezinbestekoa dela ziurtatzean. Jolasa izakiaren berezko jarduera bat da, haur zein helduentzat. Hazkuntza fisikoa, emozionala, kognitiboa eta soziala ahalbideratzen ditu, osasuntsua da eta edonork har dezake parte. Oinarri oinarrian horixe da nahi duguna, jolas-

ten jarraitu!

Horregatik guztiagatik, uste dugu Eusko Jaurlaritzak onartu behar duela neurri honek ez duela inolako onurarik osasun egoera hobetzeko, eta ondorioz, Eskola Kirolaren programari eusteko eskatzen diogu, inolako aldaketarik gabe.

**Urtarrilaren 15ean**

**Eskola Kirolaren aldeko elkarretaratzea deitu zuten herri eragileen adierazpena**

## Ika-mika

## 20.000 pertsona inguru

**A**banduaren 18an, larunbata, manifestazio bat egin zen Donostian, Bizitza kolektiboak antolatuta, covid pasaporte erabiltzen duen Eusko Jaurlaritzaren dekretua (pasapor-te nazi ere deitua) salatzeke. Manifestazio horretan 20.000 pertsona inguruk parte hartu zuten, eta Donostian egin den manifestazio handienetakoa bat izan da.

Azpimarratu behar da oso garrantzitsua dela Bizitza bezalako kolektibo bat izatea, inolako alderdi politikoren edo komunikabide baten babesik gabe, 20.000 pertsona inguru biltzea lortu duena. Zalantzarik gabe, jauzi kualitatiboa da, mezu inplizitua baita "beldurra aldatu egin dela". Eta, zalantzarik gabe, jende xumearen itxaropena jasotzen du, eta zalantzarik

gabeko mezua helarazten die alderdi politiko guztiei; izan ere, alderdi politiko guztiak duela bi urtetik hona erreproduzitzen ari dira, eta bertsio ofiziala legitimatzen, elkarbizitzaren aitzakiarekin, oinarrizko eskubideen murrizketa legitimatzen ari baitira, eta hertsapen-estrategia bat legitimatzen, aurrerarik gabea, biztanleria osoaren gainean, eta, bereziki, gaztetxoaren gainean, injekzio bat hertsatzeko. Haurrak ez ikutu!

Bertsio ofizialaren kontakizuna legitimatzeko eta herritarrek duintasun handiz babesteko lana egiten ari diren gizarte-kolektiboaren lana ezkutatzeko beharrezkoa den lankidetzaren rola jokatzeko ari diren komunikabide guztien zeregina nabarmendu nahi dut.

Galdetu beharra dago nola

sortu ziren herri-babesari esker, eta esplizituki ari naiz Gara eta Berria bertsio ofizialaren kontakizuna legitimatzeko eta gizarte-kolektiboaren lana ezkutatzeko lan horretan laguntzen. Eta ezkutatzeko horren frogar bat abenduaren 19ko hemerotekan aurki daiteke, eta abenduaren 18an ospatutako jendetzaren ezkutatzeko egiazta daiteke.

Komunikabideek oro har eta Gara eta Berria bezalako hedabideek Euskal Herriko biztanleei bizkarra emanez izan duten jokabidea ulertzeko, abenduaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira jo dezakegu (65/2021 Ebazpena, azaroaren 23koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Eusko Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena). Horren bidez, 5 milioi euro honela banatzea

erabaki da:

El Correo 1.608.716. Diario Vasco 747.535. Deia 558.126. Gara 305.580. Noticias Gipuzkoa 171.731. Noticias Alava 113.645. Berria 290.000. Cadena Ser 520.244. Cope 174.256. Onda Cero 123.747.

Oso garrantzitsua da Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian irakurtzea, 5. orrialdeko bigarren erabakian, diru-laguntza horiek zergatik eta zertarako eman zaizkien esaten digunean. Eta honela dio: "Diru-laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, erakunde onuradunek pandemiari dagokionez herritarrenganako hurbiltasunari eta zerbitzuari buruzko informazio-ildo berari eusteko".

Urtarrilak 22 larunbata, denok Bilboko manifestaziora.

**Bizitza plataforma**

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urtarrilak 28. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 24.

# Zubietako Eskola: “Ez dago garapen egokirik jolasik gabe”

**A**din aniztasuna oinarriko balore izanik, osasun krisialdiak behartuta “ia eskola berri bat berrasmatu” behar izan dutela adierazi digu Zubietako Eskolako zuzendari Jugatz Illarramendik. Haurrek garapen osasuntsua izateko eskubidea bermatzearen garrantzia azpimarratu dio NOAUA!ri lerroetan, 2022-23 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu berri den honetan.



“64 ikasle gaude aurtengo ikasturtean”, adierazi digu Jugatz Illarramendik.

## NOAUA! Zer du eskaintzeko Zubietako eskolak matrikulatzera datorrenari?

**Jugatz Illarramendi:** Aurtengo Hezkuntza Sailak zazpi plaza eskainiko ditu eta horiek lehenbizi zubietarrekin beteko dira eta gero datozenekin. Matrikulatu kopuru altua zekarrela ikusita Hezkuntza Sailak zubietarrak eta ikasle zirenen anai-arrebak bakarrik onartzea erabaki zuen. Desadostasuna eta haserrea sortu izan du gai honek batzuetan plaza batzuk hutsik uzteko aukera ahalbideratzen baitzuen. Eskolak, Herri Batzarrarekin, guraso elkartearekin eta Usurbilgo Udalarekin lanketa handi bat egin ondoren Hezkuntza Sailari plaza horiek betetzea eskatu genuen, zubie-

## JUGATZ ILLARRAMENDI

**“Eskola edukiak transmititzeko gune bat baino askoz gehiago da”**

tarrak lehenetsiz baina zubietarrekin betetzen ez zituztenean inguruko herrietakoen eskaerekin bete ahal izatea. Geroz eta jende gehiago gerturatu zaigu, interesa sortu duen proiektua da. 64 ikasle gaude aurtengo ikasturtean. Inguruko herrietako jendea etortzea aberasgarria izan arren, guk ere aldarrikatzen dugu Zubietako eskola zubietarrentzat izatea eta eskola txikia izaten jarraitu nahi dugu.

**Txikitasun hori balore duzue**

## eskolan.

Gu ez gara ohiko eskola bat tamaina txikiagokoa, gure baloreak beste batzuk dira; oinarrikoena adin aniztasuna da, guk benetan sinesten dugu haurrak elkarrekin ikasten dutela eta adin desberdinetako haurrek elkarri eragiteko aukera asko dituela. Covid-19ak izugarri eragin du gure baloreetan. Bi adin tarteka elkartu ditugu gelaka baina ez da nahikoa guretzako, ezinbestekoa zen LH 6koak 3 urtekoekin elkarrekin egotea egunero. Ondorioz ia eskola berri bat berrasmatu behar izan dugu. Egia da bestalde, gure beste baloreetako bat herrian elkarreagitea dela eta horretan ez dugu aldaketarik egin behar izan.

## Herrian erabat txertatutako eskola baita.

Guk beti diogu gu ez garela irakasleak, bai egoera batzuk sortzeko bidelagunak. Ikasleen interesatik abiatuta planteatzen ditugu gaiak, dakien horrengana jotzen dugu eta hura etortzen da eskolara. Pandemian bideodeiekin moldatu gara.

## Nola bizi du eskolak bi urteotan etengabe egokitu behar hau?

Pozik gara eskola irekita izan eta haurrak eskolan ditugulako. Guretzat helburu nagusia hori zen, haurrak eskolan izatea jasan duten erasoaren ostean. Haurrek elkarrekin egotea, jolastea, haur bakoitzak dituen gaitasunen garapen egoki baterako ezinbestekoa da. Ez dago garapen egokirik jolasik gabe eta ahazten zaigu. Eskola edukiak transmititzeko gune bat baino askoz gehiago da, jolasa, eta elkar eragitea da. Jolasten ikasten dute, sinbolizatzen dute, helduon mundua erreproduzitzen dute. Elkar zaintza hori oso modu naturalean ematen da hemen, baina elkarzaintzarako gune errealeak eskaini behar dira. Oso txintxo egon gara bi urteotan baina aldarrikatu behar dugu gure haurrek eskolan egon behar dutela.

## “Helduok gehiago entzun behar genuke”

### Zuen ikuspegitik nola tratatu dira haurrak?

Haurrak pandemian erresolubitoak izan direla diotenean asko haserretzen naiz, haurrei ez zaie beste aukerarik eman. Gizarte kritikoa eta autonomo bat nahi dugu, baina hori guk eraikitzen dugu, guk transmititzen dizkiegu balore horiek baina ez diegu horretarako aukerarik eman. Kudeatzeko gaitasunik izan ez duten bel-

durra transmititu zaie. Derrigoritu ditugu modu batera isilik eta txintxo egitera. Ez dira haien beharrak entzun ezta errespetatu ere. Eta txalotu egin ditugu protestarik egin ez dutelako. Txalotuko nituzke haserretuko balira. Haien eskubide naturalak (jolasa, elkar eragina...) aldarrikatuko dituen gizarte bat nahi badugu ezin dugu aldarrikatu haurrak txintxo egotea etxean. Helduok balore horiek

txalotzen ditugunean hausnartu beharko genuke zer balore ari garen transmititzen eta ze gizarte esaneko nahi dugun. Haurrek gehiago protestatu eta helduok gehiago entzun behar genuke.

### LH ziklo osoa martxan duzue jada, egonkortuta?

Iaz izan genuen lehenbiziko aldiz 6. mailako taldea, adin aniztasunean sinesten dugunontzat

izugarritzko lorpena izan da. Adin aniztasunaren aberastasuna hor ikusten da. Gurekin 6. maila egiteko gudan sinestu zuten familientzat esker hitzak baino ez ditugu, izugarritzko indarra eman zigiten gure profesionaltasunean sinestu eta gure proiektua sendotzeko. Oso pozik gaude ikusita zenbat familia gerturatu diren gure proiektuarekiko interesa agertzera.



# Aginagako Eskola: “Familia giroko eskaintza goxoa dugu, hartueman gertukoa”

**NOAUA! Zer du eskaintzeko Aginagako Eskolak matrikulatzera datorrenari?**

**Leire Salaberria:** Familia giroko eskaintza goxoa, hartueman gertuko eta egunerokoa familiekin. Proiektuka lan egiten dugu, umeen interesetatik abiatuta, sortzen diren gaiak hartu eta horiek jorratzen ditugu.

**Nola kudeatzen duzue matrikulazio kanpaina?**

Telefonoz hitzordua eskatu eta hona datozenean, betebeharreko agiriak ematearekin batera, eskolaren funtzionamendua erakusten zaie ikasleak bertan daudela, eskola bizirik ikusteko; nola dauden lanean, jolasean, zer harreman duten, elkarri nola laguntzen dioten, adin aniztasun hori ikusten da...

**Ikasle kopuru aldetik eskola bizirik da?**

Une honetan 43 ikasle ditugu. Zaila da aurreikustea ze bilakera izango duen, baina guretzat 40 bat ikasle izateak lan egiteko modu polita eskaintzen digu.

**Eskolaren bueltako komunitateak garrantzia berezia du zuentzat?**

Erdigunean dago, harreman polita dugu gurasoekin, zaharren egoitza bertan dugu, osta-



“Eskola handiek baino baldintza hobekak ditugu burbuilak antolatzeko”.

## LEIRE SALABERRIA

**“40 bat ikasle izateak lan egiteko modu polita eskaintzen digu”**

tua ere bai. Eliza Zaharra auzolanean eraberritzen ari diren gazteekin ere bai; erabiltzeko aukera dugun Eliza Zaharra auzolanean berritzen ari dira auzolanean.

**Matrikulazio garaia bigarren urtez osasun krisialdi betean. Eskola proiektua osoki gartzatzen segitzea zaildu du?**

Txikiak izanik eskola handiek baino baldintza hobekak ditugu burbuilak antolatzeko edo irteerak egiteko garaian. Inguruko hainbat eskoletan irteerak bertan behera utzi behar izan

zizutela entzuten zen 2020-21 ikasturtean, guk horiek aurrera eramateko aukera izan genuen, kopuru txikiko taldeak ditugulako. HH eta LHko ikasleek ezin izan dute elkarrekin ibili bi burbuila direlako eta horrek zailtasunak sortu ditu.

**Bi urteren ostean zer moduz zaudete?**

2020-21 ikasturtean eskola kezka handiz ireki genuen berri, ikasgelak itxiko ote zizkiguten, ia ikasleak konfinatuko ziren, eta ezjakintasun horrek urduritasun handia sortzen du. Lehenengo urtea nahiko gogorra izan zen. Orain jada nekatuta gaude, burokratikoki bete behar ditugun protokolo eta jarraibide horiekin guztiekin. Gainkarga bat sortu zaigu.

Ikasleen artean ere harreman batzuk moztu egin dira bi burbuila izanik, batzuk ezin dira besteekin harremanetan jarri eskolako orduetan. Emozionalki ikasle batzuk badakigu ez dutela hain ondo pasa. Musukoen erabilerak ere eragina du. Egoera ez da erraza. Mol datzen goaz.

**Protokolo aldaketa asko sufritu dituzue, azken aldiaren are gehiago.**

Familiek askotan ez dakite nola jokatu, haurrekin nola antolatu. Ezjakintasun handia dago. Protokoloak aldiro aldatzen doaz. Zaila da. Oso ganean egon behar dugu, zer jarraibide eman jakiteko. Neketsua da. Askotan geratzen zara nola jokatu behar jakin ezinik, gomendioak emanez familien galderei erantzun ezinik. Ezin dugu medikuen rola bete. Egoerak gainezka egin digu orohar. Eskerrak eskolako egoeran pentsatzen duten familia jatorrak ditugula.

**Komunitate horren balioa inoiz baino ageriagoan gertatu da orain.**

Ahalik eta eragin gutxienean eragiten saiatzen gara eskolari langileok eta familiek. Zaintza hori badago bai familien eta zentroaren aldetik.

## “Gustura segiko genuke hemen”

Azken ikasturtea dute Aginagako Eskolan, hurrenez hurren LH5 eta LH6an ikasten ari diren Udane Larburu Kaperotxipik eta Irati Murua Bereziartuak. “Aukera izanez gero gustura segiko genuke hemen”, adierazi diote HHtik eskolako ikasle izan direnek NOAUA!ri, Aginagak halako eskola bat behar duela

baiezkatuta, “jende dezente bizi baikara”. Haien bizitzaren erdigunea izan da eskola urteotan. “Aginagan egiten dugu bizitza; eskolan, frontoian”. Gertu baita harremantzeko ere. “Gutxi garen, denok elkar ezagutzen gara, irakasleak oso jatorrak ditugu”, adierazi digute. Hamaika bizipen eramango dituzte eskola uztean. Gustukoaren irteerak

dituzte, “denetan ondo pasatzen dugu”.

Bi urte betetzear den osasun krisialdi honek eragin die eskolan. Nabari dute aldaketa bai, protokoloek behartuta. “Azken urteotan txikiekin ezin dugu egon, beti burbuilak mantentzen ari gara”. Gainerakoan, “musukoekin agobio pixka bat bai, batzuetan

burukomin pixka bat jartzen zaizu, baina bestela dezente ondo” moldatu direla diote. Lehen musukorik gabe atara zitezkeen kalera, baina “orain kontu handiagoz ibili beharra dago, badaezpada”, diote. Dagoen egoeraren jakitun, momentuz birusa “sahiesten ari gara” gaineratu digute.

# Danbor garai oparoak

Aurtengoan eta joan zen urtean ere, Donostian danbor hotsak isildu egin ziren San Sebastian egunez. **Udarregi Ikastolan** ere ohikoa dute danborrada ospatzea, beti ere pandemiak kanpo. Duela 25 urte pandemiaren inolako beldurrik gabe ospatu zuten danborrada txikiek.


Azterketa garaia heltzear zen hartan, “Zer irizten” atalean, **Aitor Egileta** ikaslea kexu zen garaiko azterketa metodoa oso zaharkitua eta eraginkorra ez zelakoan. Herrian, ika-mika gehiago ere baziren

helduen artean, **Etxebeste Kalea** oinezkoentzat egin edo ez erabakitzeko. Askorentzat zentzugabekeria, eta beste hainbatentzat derrigorrez hartu beharreko erabakia.

Udalak bazituen beste zenbait arazo ere konpontzeko, azken urteetan gertatzen ari zen biztanle galera, alegia. Ia 6000 biztanle izatera hurbiltzeko joera hartu zuen herriak 1987an, eta 1996an, berriz, 5200 pasatxo baino ez ziren. Hala ere, langabezia datuak oso onak ziren, eta bazirudien biztanleen bizi-kalitatea ezin-hobeia zela.

Uriberrri Berriko teila-labearen misterioa azaltzen ere saiatu ziren NOAUA!ko lagunak ale hartan. **Aranzadi Zientzia Elkartea** aztarnak bilatzen aritu zen data zehatzagoak eman eta lehenago zertarako erabiltzen zuten jakiteko. Ikerketa puri-purian zen eta usurbildarrak gogotsu zeuden xehetasun gehiago izateko.

Amaitzeko, lehiaketa. Horra orduan luzatu zuten galdera: Zubietako plazan geldituta, bolatokira hurbildu gara. Bolok hartu eta birlak botatze-ra! Baina, ba al dakizue zen-



1997ko urtarrilaren 24ko portada.

bat birla diren boloekin bota behar ditugunak?

## Duela 25 urte

NOAUA! 12. zenbakia 1997ko urtarrilaren 24an

## “Soka poste bati lotu eta hari tiraka entrenatzen genuen”

1981eko uztailaren 1ean jaio zen Egiolera baserrian eta hiru semeetatik zaharrena da. OHOKo ikasketak Udarregi Ikastolan egin ondoren, Urnietara joan zen LH egitera. Hala ere, aurten ikasketak utzi eta baserriko lanetan hasi da. Hemendik aurrera, Egiolera sagardotegira bazoazte behin baino gehiagotan ikusiko duzue Aitor.

### NOAUA! Lan asko ematen al du baserriak?

**Aitor Alkorta Etxeberria:** Bai, nahikoa, neguan udan baino lan gutxiago izaten da, hala ere, beti egoten da lanen bat.

### Zer dela eta utzi zenituen ikasketak?

Ikasteko gogorik ez neukalako. Ez nintzen ikasle ona eta nahiago izan nuen uztea.

### Azken hilabeteetan sagardoarekin arituko zineten.

Gehien bat bai. Sagardotegia irekitzeko prestatzen aritu gara eta sagardoa egiten ere bai. 24.000 litro egin ditugu aurten, gehien bat etxeko sagarrarekin.

### Orain arte zenbat sagardo edan duzu?

Gutxi, ez naiz sagardozale porrokatua. Bestelako irudia ematen badut ere nahiago dut beste zerbait edan.

### Gose handirik ez duzu pasazuk orain arte.

Ez, jan ondo jaten dut. Edozein janari dut gustuko. Hori bai, haragia jartzen badidate hobeto, baina arraina jarrita ere ez dut plateran utziko. Horretan ez dut akatsik.

### Arraunean zein da zure talderik gustokoena?

San Pedro. Txiki-txikitatik izan naiz San Pedrokoa. Ama hangoa dut eta hortik etorriko zait more kolorearekin dudana zaletasuna. Etxean hiru semeak eta ama Pasai San Pedoren aldekoak gara, eta aita, berriz, Orioren aldekoa.

### San Pedron arraunean ere ibilia zara, ezta?

Bai, 11-12 urterekin hasi nintzen. Osabak eramane ninduen. Pasaian lagun batzuk zituen, eta hauek balio nuela esan eta arraunean hasi nintzen.

### Eta orain?


Orain jada ez naiz ibiltzen, joan den urtean utzi nuen. Arrauna oso gogorra da. Txapelketa batzuetan parte hartu genuen, baina zeharo gaizki ibiltzen ginen. Badirudi arraunean indarra edukitzea nahikoa dela, eta hori ez da horrela. Teknika oso garrantzitsua da.

### Sokatiran emaitza hobeak izan zenituzten?

Bai horixe. 6. eta 8. mailan Euskadiko eskolarteko txapeldunak izan ginen Udarregi Ikastolarekin 1993 eta 1995ean. Aurretik, Gipuzkoako Txapelketan ere aurrea gelditu ginen. Bi urte haietan ez genuen tirada bat bera ere galdu.

### Nola hasi zineten sokatiran?

Futboleko, eskubaloian, saskibaloian, sokatiran... jokatuzeko aukera eman ziguten eta guk, handienak, sokatira aukeratu genuen. Josu Arruti, Agerreazpi, Urko Manteola, Xabier Murua, Jon Olaiola, Oskar... ibiltzen ginen Inaxio eta Txominekin entrenatzen.



Aitor Alkorta Etxeberria.

### Noiz entrenatzen zenuten?

Jolasgaraian. Soka poste bati lotu eta hari tiraka entrenatzen genuen. Jolasgaraietatik kanpo inoiz ez genuen entrenatu.

### Egiolera hain urrun egonda, nola etortzen zara Usurbila?

Gaur egun moto txiki bat dut Usurbila joan eta etxera etortzeko. Orain arte bizikletaz ibiltzen nintzen. Parranda egin ondoren, bizikletan joaten nintzen etxera, batzuetan goizean goiz asko, gainera. Hasieran beldurra pasatzen nuen, baina gero ohitu egin nintzen. Orain, berriz, hamar minututan etxean naiz.





Hurbilago Elkarteak Usurbilgo ostalarien eta merkatarien bilguneko kide diren establezimenduetan 30 euroko 30 erosketa-bono zozketatu ditu urte hasieran, aurreko asteetan aipatu saltokietan eginiko erosketen truke. Irudiotan sarituak izan diren hainbat herritar.



# Eskola Kirolaren alde, osasun kontua baita

Kirol jarduera gogokoen jolasten egon behar zuten, lagun artean jarduera fisikoaz gozatzen. Baina ez. Mikel Laboa plazan batu behar izan zuten, beste behin, enegarrenez pairatzen ari diren eskubide urraketa bat salatzerako. Haien garapen fisiko nahiz mentalerako eskakizun xume bezain oinarritzko baten bueltan bildu ziren, pankarta baten bueltan, gutxitan ikusi ahal izan ditugun moduan, lehen lerroan. Plaza hartu zuten urtarrilaren 15ean, aski dela esateko. “Haurren aurkako debeku gehiagorik ez” dutela nahi adierazteko. Jolasa osasuna dela gogorarazteko. Hala zioen esku artean hartu zuten pankartak.

Atzean gaztetxo talde batek kartulinetan eskuz idatzitako eskaera argia: “Kirola egin nahi dugu”. Ez zeuden bakarrik. Mikel Laboa plazan egin zuten elkarretaratzean batu zirelako haurrak, gurasoak, hezitzaileak, begiraleak, herritarrak... Eskola Kirolaren bueltan lanean dabilzan norbanako nahiz eragileak. Aldizkari honetako bosgarren orrialdean duzue plazaratu zuten adierazpena. Finean, Eskola Kiroleko lehiaketa debekatzeko Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriarekin desados agertu ziren. Koherentzia eskasekoa dela adierazi zuten “eta era guztietako ondorio negatiboak dakartza”,



Mikel Laboa plazan batu ziren, “Kirola egin nahi dugu” lelopean.

## ESKOLA KIROLA

**“Plaza hartu zuten, aski dela esateko. Jolasa osasuna dela gogorarazteko”**

ohartarazi zuten, haur eta gazteen garapenean. Horregatik Jaurlaritzari erabaki hauek osasuna zaintzearen ikuspegitik onurarik ekarri ez dakarrela gogorarazi eta beraz, Eskola Kirola bere ohiko martxara itzuli ahal izatea eskatu zioten. Une honetan, hainbat mugen baitan baina Eskola Kiroleko entrenamenduak egin ditzakete astetartean. Aldiz, asteburuetan izaten dituzten txapelketak jokatu ezinik dira lehiaketok debekatu zituelako Eusko Jaurlaritzak hilabete hasieran, urtarrilaren 28ra arte gutxienez.

Bitarte horretan, asteburuko bizimoduan, kirola taldean egin ezinik dira haurrak, aisialdi tartean hutsune nabarmena utziz. Astetartean entrena-

mentuak bai, baina pizgarri eta motibatzaileak diren asteburuko neurketak jokatu ezinik dira. Osasuna lehenestez sarritan ari garen honetan, zaintza bide horretatik urruntzen den erabakiak jasan beharrean.

## Ohiko dinamika berreskuratu ezinean

Musukoekin, burbuiletan bereizita, materiala desinfektatuta aritu behar izan dira pandemian zehar kirol arloko herri eragileak. Une oro neurri murriztaileen eraginpean. Tximeleta soinketa erritmikokoak tartean, Kiroldegi barruan. “Hasieran egin zen guztia berriro zorrotzago bete behar orain”, taldeko koordinatzaile Itsasne Telleriak aipatu digunez. Aire librean direnez, musukoekin, burbuilekin, distantziak mantenduta bai baina “malgutasun gehiagorik” jokatu ahal izan dute Eskola Kirolaren baitan Haranen futboleko

dabilzanek. Pagazpe pilota elkartekoak ere halaxe dabil-tza frontoian aire librean, musukoekin halere.

Neurri murriztaileek bete-betean eragin diete baita Zirimara egitasmoan, “gure antolakuntzan eragin digu adin nahasketak” bultzatzen baitute baita deitu izan dituzten familia planetan. “Ez digute uzten guk saioak nahi ditugun moduan ematen”, dio Zirimarako koordinatzaile Iban Maritxalarrek.

Ulertezina iruditzen zaie orain, Eskola Kiroleko pilota arloko koordinatzaile Jon Irazustabarrenak adierazi digunez Eskola Kiroleko lehiaketak bertan behera uztea, “ez da asko aldatzen entrenamendutik partidetera”. Baina entrenatu dezakete, txapelketarik ospatu ez ordea. “Hartu den erabakiak ez du ez hanka ezta bururik ere”, futboleko Eskola Kiroleko koordinatzaile Manu Urbietaren iritziz.

Eta ez da lehen aldia. “Ez dakit zenbat geldialdi izan ditugun” pandemia hasieratik, NOAUA!ri azaldu dionez. Futbolari kasuan, “aldagelarik gabe dira 2020ko martxotik. Pentsa zer den negua hor goian. 2020-21 denboraldian partidarik jokatu gabe, burbuiletan entrenatzen...”. Haiek haiena bete dutela diote. “Beti arau guztiak bete ditugu”, baina egun indarrean den lehiaketen debekuak “ez duela inolako zentzurik” deritzote.

## Ohitura osasuntsuak bermatu ezinik

Nekea sumatzen dute hezitzaileen artean jada, baina aipatu digutenez, “amorrutik handiena haurrekiko” jokabidea da. “Kaltetuenak haiek dira eta horrek ematen digu min gehien”, Maritxalarren esanetan.

Eskola Kirolean landu eta sustatzen diren baloreen aur-

ka doaz halako erabakiak eragileon esanetan. “Kirol elkarte baten helburu nagusia ohitura osasuntsuak bultzatzea da eta kasu honetan kontra goaz”. Argi diote, “aire librean kirola sustatzea osasuna da, lagun artean jolasean jardutea osasuntsu da” Urbietak gogorarazten duenez. Hezkuntzan hainbestetan

aipatzen den haurren “garapen integrala, Eskola Kirolean une honetan ezin dugu eskaini, ezin da bermatu”.

Eta galera begi bistakoa da. Asteburuetako txapelketen debekuak eragina du astean zeharreko entrenamendu nahiz talde dinamiketan. “Asteburuko partiden ilusioa ez da larunbatean

hasten. Asteazkenean zehar bizi eta partekatzen dute ilusio hori”, Irazustabarrenaren esanetan. Arriskuan jartzen du asteburuko etenaldiak, astetarteko entrenatzeko ohitura, “ez dago motibazio berdina” Urbietak dioenez. Iazko denboraldian ere partidak jokatu ezin izan ziren eta “igarri egiten da”.



# “Pistan aldatu behar dira, denen aurrean”

Aldagelak erabiltzeko debekuak ere eragina badu. Tximeleta taldeko koordinatzaile Itsasne Telleriak kontatu digunez, haien kasuan Oiardo Kiroldegian “pistan aldatzen dira denen aurrean”. Haranen ere pandemia hasieratik egoera beretsuan dira. Erabili ezin dituzten aldagelak badira Urbietaren esanetan, “ohitura osasuntsuak sustatzeko nahiz autonomia lantzeko guneak”.

Tximeletakoen kasuan, gimnasia erritmikoan murrizketa gehiagori aurre egin beharrean aurkitu dira. Taldekako dantzak lantzen dituztenez, izan zen une bat, 2020ko udazkenean “dantzak ezin ziren egin, taldeka bai baina kontakturik gabe, ia ezinezkoa zen egitea. Azkenean merezi ote duen galdetzen diozu zeure buruari”.



Irizpide falta sumatzen dute azken erabakien atzean.

Irazustabarrenak azaltzen zuenez Pagazpen gertatu zaie, “egutegia prest izanda, kamisetak banatuta... Azken unean bertan behera utzi beharra” kirol dinamika hilabete baino gehiagorako. “Horrek nekagarriagoa izatea eragiten du”.

## Zergatik?

Gaztetxoek eta helduen artean, galdera bat buruan: zergatik? Irizpide falta sumatzen dute

erabakion atzean. “Ez dute adierazten zertan oinarritzen diren esateko hau eteten dela. Guk geure haurrei gero zer azaldu?”, dio Urbietak. Ezin haurrek egoera honen bueltan egin ditzaketan galderei erantzunik eman. “Ziurgabetasuna haientzat eta elkarreontzako, azkenean erantzunik ez dugu lako”, Zirimarako koordinatzailearen hitzetan.

Erantzunik ezin eman, uler-

tezina zaielako. Ulertezina zaie nolatan Eskola Kiroleko lehiaketak eteten diren eta haurrek gero nola ikus dezaketen milaka lagun bilduta futbol zelaietan. Aldiz, “haurrei onuragarria zaien jarduera fisikoa oztopatzen ari dira”.

Egoera honek luze ez jotzea espero dute, haurrengan duen eragina begi bistakoa baita, haien “progresioa mozten dute”.

Bistan denez, hamaika arrazoi zituzten Eskola Kirolaren bueltan lanean dabiltzan herri eragileek hilaren 15ean plazara ateratzeko. “Gure ustez jarduera fisikoa osasuna da. Osasuna nahi dugu defendatu. Atzeraka goaz”. Eta ez da aldarrikatzen duten lehen aldia. Herri eragileok duela urtebete, etenaldi luze baten ostean dinamika berreskuratzeko unean zirenean antzekorik aldarrikatu zuten.

## HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

### Matrikula epea

**urtarrilaren 27tik otsailaren 4a arte**  
(aldeaz aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08 )

**•HEZKUNTZA OROKORRA**  
(Oinarritzko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.  
Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarritzko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazioz dutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **EUSKARA TAILERRA (MAILA 1 ETA 2)**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**



**ARGIBIDEAK: 943 36 66 08**

## noqua

jarraitu gure sare sozialak

  
facebook

  
Instagram

  
twitter

  
noqua



[www.noqua.eus](http://www.noqua.eus)

## “Gure emanaldiak oso bisualak dira”



‘Geuretik Sortuak’ beka deialdiari esker ‘Bidaide’ izeneko antzezlanana osatu dute.

**M**etrokoadroka Sormen Laborategiak ‘Bidaide’ antzezlanana eskainiko du larunbatean Sutegin. Idoia Beratarbide eta Iraia Elias zuzendari dituen antzezlanak ‘Geuretik Sortuak’ beka jaso zuen iaz.

**NOAUA! Zein dira antzezlanen landuko dituzuen gairik mar-dulenak?**

**Metrokoadroka sormen laborategia:** Anonimotasuna, ikusiezintasuna, kontatu gabekoa, artea eta herrigintzaren arteko harremana... Guztia modu poetiko eta umoretsuan.

**‘Bidaide’ antzezlanana modu bisual, poetiko eta umoretsuan gauzatuko den teatro-ekintza dela diozue. Nola uztartzen dira ezaugarri horiek denak?**

**METROKOADROKA**  
**Larunbatean ‘Bidaide’ antzezlanana eskainiko dute Sutegin**

Gure lan egiteko moduan ez dugu alde zurririk testu bat idazten. Talde lanean abiatzen gara, gaitan inguruan irudi poetiko fisikoak sortzen. Irudi horietan saiatzen gara esku artean dugun gaia azaleratzen, baina senari jarraituz, hitza eta arrazoa erabili gabe, barruan dugunari aterabidea emanez, inkontziente kolektiboari hitz egiten uzten saiatuz.

Amaieran etortzen da hitza irudiok janztera. Modu horretan, gure emanaldiak oso bisualak eta plastikoak dira abiapuntuan, eta poesia seguraski irudi horiei hobe-kien egokitzen zaien kontatze-ko modua da.

## “Herri bakoitzean bi kulturgile elkarrizketatzen ditugu”

**NOAUA! Zuzendari eta aktore ere bazarete. Nola uztartzen dira bi lanak?**

Aurretik egin izan dugu gauza bera, ‘Andrezaharraren manifestua’ emanaldian adibidez. Egia da honakoa lan handiagoa eta sakonagoa dela, eta erronka oso handia izan dela. Guk zuzendaritza artistikoa egin dugu, baina horretarako sostengua talde dinamika bera izan da.

**Tokian tokiko artistak ohol-**

**tzara igotzen dituzue ikuski-zunean. Usurbilgo emanaldirako aukeratu dituzue jada?**

Hori bazen hasierako ideia, baina obra egin ahala, normala denez, hautuak eta erabakiak egokitzen joan behar izan dugu, obraren bilakaerak berak eskatzen zigunaren arabera. Artistak igotzearen ideia aldatu egin da, eta egiten dugunak elkarrizketa forma hartu du: herri bakoitzean bertako bi kulturgile elkarrizketatzen ditugu zuzenean.



## ABIATUrekin, askoz gehiago!

**A-636 Beasain-Bergara**  
**autobian ere bai.**

**Urtarrilaren 18an** jartzen da abian **A-636 Beasain-Bergara** autobioiako bidesari berria.

Ibilgailu guztiek nahitaez ordaindu beharko dute, motozikletek izan ezik. Bidesaria **FREE FLOW** sistema bidez, hau da, matrikula irakurtzeko arku bidez kudeatuko da.

Gipuzkoan bizi diren autobioiaren erabiltzaileentzat aukerarik onena **BIDEGIren ABIATU** gailua edukitzea da. Gainerakoentzat, nahikoa izango da edozein VIA-T gailu edukitzea.



✓ **AURREZPEN HANDIAGOA**  
(ABIATUrekin soilik)

Tartekako deskontuak.  
Hileko gehieneko gastua.

✓ **INBERTSIO HANDIAGOA**

Bildutako dirua errepedea hobetzeko eta mantentzeko erabiliko da.

**ABIATU**ri eta bidesari berriari buruzko informazio gehiago:

[www.bidegi.eus](http://www.bidegi.eus)

☎ 943 105 106

✉ [info@bidegi.eus](mailto:info@bidegi.eus)



# “Merezi dugulako!” aldarripean, zabalik sagardotegien denboraldi berria

Muga eta debekuen gaineratik, bezeroak egoki erantzun duela ikusi ostean eta “merezi dugulako” aldarripean, “oraingo honetan baikor gatoz” adierazi zuten iragan astean Euskal Sagardoa jatorri deituraren bueltan dabiltzan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sagardogileek. Eta gogotsu. “Ezohiko egoera bati aurre egiteko erronka eta konpromisoa hartu du sektoreak, lanerako protokolo zehatzak garatu eta sagardo berria eta sagardotegien esperientzia bezeroei modu erakargarri batean dastatzera emateko”. Donostiako San Telmon egin zuten sagardotegien denboraldi berriaren aurkezpenean azpimarratu zuten ordea, oraindik ezohiko txotx garaia biziko dugu aurten ere.

Eserita dastatu ahalko dugu sagardo berria, sagardotegi batzuetan botila garden edo pitxerretan zerbitzatu digute, beste batzuetan sagardoa jasotzera altxa ahalko gara. Batzuetan botila hauetan bestetan kupeletan, adi, QR kode bidez sagardo horren ezaugarri buruzko informazioa jaso ahalko dugu.

Berrikuntza gehiago; otorduen aurretik eta bezero hainbaten eskakizunei erantzunez “dastatze



Euskal Sagardoa jatorri deituraren baitan dabiltzan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sagardogileen ordezkaritza.

## SAGARDOTEGIEN DENBORALDI BERRIA

**“3,5 milioi litro ekoitzi dira Euskal Sagardoaren baitan. Iaz baino hiru aldiz gehiago”**

gidatuak antolatzen hasiko dira sagardotegietan bertan”. Eta erreserben kudeaketa errazte aldera, euskalsagardoa.eus atarian online hartu ahalko da lekua.

### Uzta historikoa

5 milioi kilo sagar bildu dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

eta 3,5 milioi litro ekoitzi dira Euskal Sagardoaren jatorri deituraren baitan. Iaz baino hiru aldiz gehiago. Datuok, “Euskal Sagardoaren barruan uzta historikoa izan da, orain arteko handiena izan delako eta oso sagar osasuntsua eta ona jaso dugulako”.

Bi faktore daude uzta historikoko honen atzean. Euskal Sagardoa egitasmotik nabarmentzen dutenez, batetik bi urtez behin egokitzen den sagar urtea eta bestalde, “administrazioen laguntzaz eta sektorearen iniziatibaz aldatzen ari diren sagasti

berriak ere ekoizpenean sartzen hasi direla”.

Aurtengo sagardoak “arintxeagoak, beharbada usaintsuagoak edo lurrintsuagoak, eta alkohol graduazio txikiagoa dutenak” izango dira. Alde handia nabaritu dugu edari batetik bestera, asko ari baita hazten dibertsifikazioa.

Sagardo botilen prezioa %10-20 artean igoko dela ere ohartarazi dute. “Ez da kapritxo bat”. Ezinbestekotzat jo dute goigera sektorearen errentagarritasunarentzat. “Beharrezkoa du sektoreak aurrera egin ahal izateko”.

## Lekua erreserbatzeko garaia sagardotegietan

### Aginaga sagardotegia

- Helbidea: Aginaga auzoa.
- Telefono zenbakia: 943 36 67 10.
- info@aginagasagardotegia.com
- aginagasagardotegia.com

### Aialde-Berri sagardotegia

- Helbidea: Santuenea 37.
- Telefono zenbakia: 943 365 031.
- Web orria: aialdeberri.eu

### Araeta sagardotegia

- Helbidea: Berridi bidea 22, Zubieta.
- Telefono zenbakia: 943 362 049.
- E-posta: araeta@araeta.com
- Web orria: araeta.com

### Arratzain sagardotegia

- Arratzain Bide kalea, 21.
- Telefono zenbakia: 623 460 819.
- E-posta: info@arratzain.eus
- Web orria: arratzain.eus

### Iruin sagardotegia

- Helbidea: Petritza bidea 12, Zubieta.
- Telefono zenbakia: 943 361 229.
- info@iruinsagardotegia.com
- iruinsagardotegia.com

### Saizar sagardotegia

- Helbidea: Kalezar, 39.
- Telefono zenbakiak: 943 37 39 95/ 943 364 597.

- E-posta: sidreria@sidrasaizar.com
- sidrasaizar.com

### Urdaira sagardotegia

- Helbidea: Urdaira baserria, Aginaga.
- Telefono zenbakia: 943 372 691.
- E-posta: info@urdairasagardotegia.com
- Web orria: urdairasagardotegia.com

# Beterri Buruntzako garapen agentzia martxan da

Garapen agentziarik ez zuen Gipuzkoako azken eskualdeetakoak zen gurea, eta astelehenean ofizial egin zen Hernaniko pleno aretoan deitu zuten sortze batzarrean. Beterri Buruntza Mankomunitatea izenarekin ezagutuko dugu erakunde berria, aurrerantzean. Marijose Izagirre Andoaingo alkate-ordea izendatu dute lehendakari eta Nuria Fernandez Lasarte-Oriako zinegotzia izango da mankomunitateko lehendakari-ordea.

Ekitaldiaren hasieratik ordezkarri bakoitza eseri zen tokia irreparatuta, bi bloke nagusi daudela atzeman zen. Alde batetik, PSE-EEk eta EAJ-PNVk osaturikoa. Eta beste aldetik, EH Bildukoa. Diferentzia horiek argi geratu ziren ondorengo adierazpenetan. Boto ponderatua edo kualitatiboa erabili zuten, eta sistema horren arabera bi kargu nagusiak sozialisten eta jeltzaleen artean banatu ziren. EH Bildu kanpo geratu zen, nahiz eta eskualdean boto gehien duen alderdia izan.

## Pozik, ñabarduren artean

Adierazpenetan, mankomunitatea sortzearekin ados eta pozik



Marijose Izagirre Andoaingo alkate-ordea izango da Beterri Buruntza mankomunitateko lehen lehendakaria.

## MARIJOSE IZAGIRRE

**“Akordioak lortzeko garaia orain hasiko da”**

agertu ziren guztiak. Horretan ez zen ezberdintasunik izan. Ñabardurak sortu ziren ordea, argudioak ematen hasi zirenean. Hernaniko alkate Xabier Lertxundik EHBildu aginte-postuetatik kanpo uzteko jokabidea aurpegiratu ziren beste bi alderdiei. Eskualdean EH Bildu duen gehiengoak, eta orain arteko prozesuan EH Bildu izan duen jarrera eraikitzailea argudio bezala erabili zuten.

EAJ-PNVko Marijose Izagirrek ez zuen bat egin hausnarketa horrekin eta “polemikak alde batera utzita, guztion erronka” gauzatu

delako pozik agertu zen. Aurrera begira, “akordioak lortzeko garaia orain hasiko da” adierazi zuen.

## Lehen gobernu batzordea:

■ Marijose Izagirre, lehendakaria (Andoaingo alkate-ordea. EAJ-PNV).

■ Nuria Fernandez, lehendakari-ordea (Lasarte-Oriako zinegotzia. PSE-EE).

■ Xabier Lertxundi, batzordekidea (Hernaniko alkatea. EH Bildu).

■ Jorge Segurado, batzordekidea (Urnietako alkatea. EAJ-PNV).

■ Xabier Urdangarin, batzordekidea (Astigarragako alkatea. EH Bildu).

■ Beñat Larrañaga, batzordekidea (Usurbilgo zinegotzia. EH Bildu).

## Ikastaro anitz Lanbide Eskolan

Langile zein langabetuentzat eta doan. “Ikastaro hauek Lanbideren % 100eko diru-laguntzarekin finantzatzen dira”. Jakintza edo ezagutza multzo ezberdinetan sailkatutako ikastaro eskaintza zabala antolatu dute; fabrikazio mekanikoa (planoen interpretazioa, CAM GIBBS, Catia...), administrazioa eta kudeaketa (bezeroei lotutako ekintzak, online tramiteak, nominak eta kontratuak, inteligentzia emozionala...), elektrizitatea (instalakuntza elektrikoaren muntaia eta

mantenua, programazioa...), instalazioa eta mantenua (klimatizazio eta aireztapen instalakuntzen muntaia eta mantenua, oinarritzko iturgintza, etxebizitzaren oinarritzko mantenua...), energia eta ura (energia berriztagarriak eta garapen jasagarria, fotovoltaikoa, uraren ziklo integralaren efizientzia energetikoa...), ostalaritza (taberna eta kafetegi zerbitzuak, ardo dastatzea...) nahiz formakuntza osagarria (yogaren bidezko estresaren kudeaketa, coaching, bezeroen arreta eta

kudeaketa egoera zailetan...). “Aprobetxatu une hau trebatzeko, birziklatzeko, eguneratzeko”, luzatu dute gonbita Lanbide Eskolatik. Izen ematea zabalik dute jada. Parte hartzaile izan nahi dutenei zuzenduriko oharra. “Covid-19aren aurkako babes eta segurtasun neurri guztiak betetzen ditugu”.

■ Izena eman nahiz informazio gehiagorako: 943 364 600  
Etarte bidea, 9, Zubieta  
lhusurbil.eus  
cursos@lhusurbil.eus

## Hobariak herritarren eskuragarri

2022rako tasa eta prezio publiko berriak indarrean ditu Usurbilgo Udalak. Oraingoan ordea %50-90 arteko hobarien eskaintza zabala jarri dute herritarren eskuragarri, “aberastasunaren banaketa justuago baten alde”. Alegia, lehen baino zerga gehiagotarako onura ekonomiko gehiago jasotzeko aukera izango da, bizikidetzaren unitateen kide kopuruaren eta diru-sarriaren arabera. Udalak kalkulatu duenez, 4.000tik gora herritar izan daitezke hobari hauen onuradunak. Tasa hauetan aplikatuko dira: ur hornidura zerbitzuan, hondakinen bilketa eta tratamenduan (etxebizitzetako dagokien tarifa finkoan), estolderia zerbitzuan, hiletan zerbitzuetan (ehorzketa eta hobitiki ateratzean, panteoikoak izan ezik), udal-baratzeen erabileran, Oiardo Kiroldagiko abonua eta ikastaroetan, Haur Eskolan eta Udajolasen. Eskerak jada doan bidera daitezke udal kontuhartzailentzian edo online usurbil.eus atarian.

## Emakumeen Jabetza Eskola

Bi ikastaro antolatu ditu Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak Emakumeen Jabetza Eskolaren baitan.

## Biodantza eta Pepa Bojoren ikastaroa

Batetik abian den biodantza ikastaroa. Bestetik, “Gure arbasoak: gure leinu femeninoarekin lanean” izenekoa Pepa Bojorekin otsailaren 3tik maiatzaren 5era, ostegunero 17:00-19:00 artean Potxoenean.

■ Izen ematea: parekidetasuna@usurbil.eus  
943 377 110.



# “Enborretik”, Joxan Artzeren poemena antologia eskuragarri

**B**ere hitzak irakur ditzagun bizitzaren oparia arnasten dugunean beratu dastatuz. Gogo argituko digu, pentsamendua zorroztu eta begirada poztasunez beteta utziko. Hitz hauekin Joxan Artzeren sortze lanetan murgiltzeko gonbita luzatu zituzten lan guztion bilduma, “Enborretik” izeneko antologia lan batean bildu duten Balea Zuria argitaletxeko kideek.

Antologia lan hau urtarrilaren 15ean aurkeztu zuten Mikel Laboa plazan, Jexux Artze Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak antolatutako oroimen arratsaldearen baitan, Artze zendu zela lau urte bete berritan. “Aspalditik dator” egitasmoa Luken Arkarazo kultur arloko udal ordezkariak oroitzen duenez. Balea Zuria argitaletxeko kideek Udalera jo zuten Artzeren sortze lanen antologia bat osatzeko asmoa agertzeraz. Eta Udaletik “nola ez, Joxanen figura aintzat hartuz dudarik gabe baiezkoa eman genien”. Pandemiak dena eten edo atzerarazi du, baita egitasmo hau ere. Horregatik zioen Arkarazok, “gaur ilusio handiz gatoz proiektu hau aurkeztera”.

Berarekin ziren Mikel Laboa



Joxan Artze hil zenetik lau urte bete berritan, bere sortze lanen “Enborretik” antologia lana aurkeztu zuten urtarrilaren 15ean Mikel Laboa plazan. Herriko sortzaileek bere aldeko oroimen ekitaldian bilakatu zuten hitzordua.

## ARTZEREN ANTOLOGIA

**“Gogo argituko digu, pentsamendua zorroztu eta begirada poztasunez beteta utziko”**

plazako aurkezpen ekitaldian, Balea Zuria argitaletxeko bi kide; Pello Otxoteko eta Felipe Juaristi. Udala, Elkar argitaletxea eta Carmen Esteban eskertu nahi izan zituzten egitasmo hau bideratzea ahalbidetu dietelako. Artzeren poemaren hautaketa egin eta argitalpena lantzeaz arduratu dira.

Ekitaldia Felipe Juaristiren errezitaldiak borobildu zuten, berak zioenez modurik egokien,

“Artzek eman didana Artzeri poesia moduan” itzulita.

## Herriko sortzaileek girotua

Emanaldia herritarrek girotu zuten; txalapartaz, Oreka Txoko eta Txokoaldeko Txalaparta Txokoko kide Harkaitz Martinez de San Vicentek eta Usurbilgo Txalaparta Eskolako irakasle Sergio Lamuedrak. Poesiaz, Alazne Arrutik eta Ugaitz Agirrek; eta musikaz Luken Arkarazok eta Artzeren iloba Haritz Harreguyk. Harreguy kide zuten Sen taldearen abesti bat kantatu zuten. Antologiaren aurkezpena sortzaile usurbildarraren aldeko oroimen ekitaldian bilakatu zuten.

# Artze eta Ez Dok Amairu bizirik, Oskarbi taldearen kontzertuan

Lau urte bete dira Joxean Artze hil zenetik eta usurbildarrek gogoan izan zuten herriko kultur gile handia. Oskarbi taldeak kontzertua eskaini zuten larunbat iluntzean.

Oskarbi taldeak Artzek eta Ez Dok Amairuko artisten hainbat idatzi musikatu abestu zituen eta horiek zein euren ibilbideko abestiekin osatutako sorkuntza lana erakutsi zuten.



Oskarbi taldekoek urtarrilaren 15ean Sutegin eskaintako kontzertua.

Txalapartari ere garrantzia erakustaldi bikain batekin borobildu zuten ekitaldia.

## “Musika isila”

“Ez dago lerro bakar bat ere unearen magia beteta ez dagoena. Dena da ezohikoa haren lerroetan, dena da musika, dena eskaintza, dena armonia”, zioen Balea Zuria argitaletxeko kide Pello Otxotekok Artzeren antologiari buruz urtarrilaren 15eko aurkezpenean. “Gai anitzak joratu izan ditu; hala nola, herriari eta gure kulturaren aitorpenari dagozkionak, naturaren oihartzunari buruzkoak, gizakia eta bere ñabardura ezberdinak eta jainkoaren presentzia. Azken honen ildo sakonki joratu zuten bere bizitzaren ondarreko bi liburuetan. Baina edozein gai hartuta ere, modu mistiko eta estetikoan jotzen zituen bere lerroak. Bere keinu guztietan eta irribarre bakoitzean lilura igorritz, urrats guztietan, behatzen duen begirada bakoitzean eta egiten duen ekintza bakoitzean magia arakatzailer bat dago”. Artzeren hitzetan, “musika isila, soinudun bakardadea eta jarrera psikomagikoak ager daitezke”.

## “Ñabardura bereziekin”

Utzi digun ondare aberatsa nabarmendu zuten. “Bere poesian halako keinu, zehaztasun eta puntu ugari topatzen ditugu bakoitza bere ñabardura bereziekin. Irudi, paisaia, metafora, hitz-joko, musika eta esanahi ederrez betetako lerro ugari utzi zizkigun. Egun euskalduntasunaren ondare kulturean betirako txertaturik dauden poema eta kantu ezagunak bere eskutik jaso ditugu”.



“Dena da ezohikoa Artzeren lerroetan. Dena da musika, dena eskaintza, dena armonia”.

# Auzitegietara heldu da Arkaitzerrekako hondamendia

Hondakinen kudeaketaren inguruko gatazkak konpontzeke eta bizirik segitzen du 2022. urtean ere. Horren adibide, urtarrilaren 11n bezala, Zubietako erraustegiari sarritan darion ke zutabea. Baina albiste dugu baita, epaitegien-gatik. Urtarrilaren 13an, auzitegietan hizpide izan baitzuten 2020ko maiatzean Arkaitzerrekan izandako hondamendiagatik.

Erraustegiaren eremutik isuritako amoniakoak ehunka arrain eta aingira hil zituen. Azaroan ohar bidez bi “iker-keta penal” zabalik daudela gogorarazi zuen GuraSOSeK, “2489/2019 eta 991/2020 aurretiazko eginbideak, ingurumen-delituagatik Donostiako 5. Instrukzio Epaitegian jarraitzen direnak, ingurumen-baimen horrekin eta erraustegiaren funtzionamenduarekin zerikusia dutenak”. Azken horren baitan, urtarrilaren 13an GHK-ri eta erraustegiaren kudeaketaz arduratzen den Ekobal enpresako bi arduradunei deklarazioa hartu zieten. He-dabideek berri eman dutenez, ezbehartzat jo zuten Arkaitzerrekan jazotakoa eta enpresa kudeatzaileari isuna jarri ziotela gogorarazi zuten.

## Fiskaltza eta GuraSOS, akusazio moduan

Deklarazio hartze honi buruzko xehetasunak ohar bidez argitu ditu GuraSOSeK. “Inputatu” gisa deklarazioa hartzea



Ke zutabe handia zerion urtarrilaren 11n Zubietako erraustegiari. Ohiko irudian bilakatu da 2019. urte amaieran piztu zutenetik. Urte hasieran sutea izan zuten biometanizazio plantan.

## AKUSAZIOA

### “Fiskaltzak eta GuraSOS elkarteko abokatuak hartu zuten parte akusazio moduan”

aurreikusia zegoen “991/2020 aurretiazko eginbideen barruan, errauskailuaren funtzionamenduari dagokionez ingurumenaren aurkako ustezko delituagatik. Erraustegiaren funtzionamenduaz arduratzen den Ekobal enpresako 2020ko maiatzaren 7ko txandako buruari operadoreari eta beste txandako buruari; GHK-ren legezko ordezkariari, labeaz arduratu zen Alemaniako enpresaren arduradunari (erraustegiaren emakidadunen bazkide teknologikoa (SBE))”.

Deklarazio hartze hauetan, “fiskaltzak eta GuraSOS elkarteko abokatuak hartu zuten parte akusazio moduan eta ikertutako defentsak”. GuraSOSeK enpresak industria

baimenik bazuen argitzea galdegin zuen.

Ikertuko dena Arkaitzerrekako 2020ko maiatzeko hondamendia izango da. Gogoan izan, erraustegiaren eremutik isuritako amoniakoak ehunka aingira eta arrain hil zituen. “2020ko maiatzaren 7tik 11ra bitartean Arkaitzerrekako errekarra ur amoniakatu isurtzea eta horren ondorioz, errekan zeuden uretako 4 espezie desagertu ziren, besteak beste, aingira, babes berezia duena” GuraSOSeK esanetan, eta hauxe da hain zuzen epaitegietan ikertuko dutena. Aipatu elkartetik gaineratu dutenez, “Guardia Zibileko UCOMA taldeak egindako ikerketan, arrinetan kutsatzaile organiko iraunkor arriskutsu eta kantzerigeno bat (kloroalkanoak) zegoela ere ikusi zen, eta egiaztatu zen ez zegoela kutsadura atmosferikoa gertatzea bermatuko zuen etengabeko neurketarik”.

## Bederatzi garren ezbeharra

Herritar batek zabalduko bideo baten harira jakin ahal izan zenez, 2018az geroztik ezagutzera emandako gutxienez bederatzigarren ezbeharra jazo zen urtarrilaren 3an Zubietako erraustegian; sutea piztu zen biometanizazio plantan, “soplete baten txinpartekin eta txinparta hauek sustantzia sukorretara heldu ostean, GHK-ren oharrak ezkutatu edota saihesten duen datua” GuraSOSeK ohartarazi zuenez. “4 unitate mobilizatu zituzten”.

Arduragabekeria larritzat jo du gertaturikoa, “soldadura lanak sustantzia sukoietatik gertu egitea segurtasun arduragabekeria larria da. Beste bat”, GuraSOSeK esanetan.

## “Segurtasunaren porrot sistemikoa”

“Planta seguru eta moderno gisa saldu zaiguna segurtasunaren porrot sistemikoa dela egiaztatu da. Konponbidea bilatu behar zaio, berandu izan baino lehen, errealitate hori eza-gutu eta proiektuaren porrotetik abiatuta”. Ingurumen ikuspegitik ere proiektuaren porrota nabarmentzen du GuraSOSeK. “Europako Batzordeak eta Europako Parlamentuak instalakuntza jasangarri eta ekonomia zirkularretik kanpo utzi dituzte, birziklapenean eta klima aldaketan dituzten eragin negatiboengatik”.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
·eguneko menua ·asteburuko menua  
·karta ·oilasko erreak, pizzak..  
**JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!**  
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO  
Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78  
RPS: 28/17  
20170  
USURBIL

**ZENDOIA**  
**ENE** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316

**Alokairuan**

Etxe bat alokairuan kaxkoan. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta igogailuarekin. 656783227

Bi logeletako etxebizitza alokatzen dut Usurbilen. 750 euro hilabetean, maskotarik ez da onartzen. 647 58 72 58

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m<sup>2</sup>ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentia da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen

da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo ingururik. 659185107.

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444 /atxega@atxegajuregia.com

Zaintzaile bat behar dugu, eguneko lau ordu, Eusko Jaurlaritzaren zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabalen, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. Interesatuok hona deitu: 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta

barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren

etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabal. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Ingeleseko, frantseseko eta latineko klaseak ematen ditut ikaslearen etxera joanda. 600766068.

**BESTELAKOAK**

Abenduaren 19an larruzko eskularru marroi bat (barrutik larru txuria duena) galdu genuen Harane futbol zelaietan. Aurkitu baduzu deitu 685725681 telefono zenbakira.

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak Joanes!**

4 urte beteko dituzu urtarrilaren 22an. Muxu handi bat familiaren partez!

**Zorionak Josu eta Aitona!**

Muxu handi bat etxekoan partez!

**Zorionak Toni!**

Ea mendi gailurren batean ospatzeko aukera dugun! Muxu bat.

**Futbol partidak****Haranen****Urtarrilak 22, larunbata**

■ 10:00 Kadete mutilak:

-Usurbil FT B

-Arrupe Chaminade CD A

■ 12:00 Kadete neskek:

Usurbil FT-Urnieta KE

■ 15:30 Jubenilak:

Usurbil FT-Ostadar SKT B

■ 17:45 Preferente mutilak:


Usurbil FT-Ostadar SKT

**Heriotzak****Maitane****Mendikute****Manterola**

Urtarrilaren 9an

hil zen, 34

urterekin.

**Heriotzak****Alberto****Paradela****Francisco**

Urtarrilaren

12an hil zen,

86 urterekin.

**Heriotzak****Miguel****Izagirre****Ibargoien**

Urtarrilaren

13an hil zen,

72 urterekin.

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 20** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 21** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 22** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 23** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 24** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteartea 25** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 26** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Osteguna 27** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 28** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 29** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 30** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.

# Agenda

urtarrila

## 20 osteguna

■ **Adrian Zelaia Ekai Centerreko zuzendariaren hitzaldia.** "Finantzen berregituraketa Europan". 19:00etan Udarregi ikastolan. Antolatzaileak: Bizitza plataforma, Ekai Center.

## 21 ostirala

■ **Arturo Vinuesa etxeko medikuaren hitzaldia.** "Sen ona haurren 'txertaketaren' aurrean". 19:00etan Udarregi ikastolan. Antolatzaileak: Bizitza plataforma, Ekai Center.

## 22 larunbata

■ **Metrokoadroka Sormen Laborategiaren "Bidaide" antzezlanaren hitzaldia.** 18:00etan Sutegin auditorioan. Sarrerak doan usurbilkultura.eus plataforman.

## Metrokoadroka taldekoen 'Bidaide' antzezlanaren hitzaldia Sutegin

**M**etrokoadroka sormen laborategiak Usurbilgo Udala kide duen Udabiltzak euskal kultura eta sorkuntza bultzatzeko iaz abian jarritako 'Geuretik Sortuak' egitasmoaren baitan ondu duen 'Bidaide' antzezlanaz gozatu ahalko dugu larunbatean, urtarrilaren 22an, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Emanaldirako sarrera doakoa izango da, dena den, aurrez eman ahalko da izena usurbilkultura.eus plataforman. "Herrietako erraldoien iruditeriatik modu poetikoan abiatuta, herrietako kulturgileen ikusezintasun hautazkoaz edo ez hautazkoaz, kultura bizitzeko moduez mintzo da Bidaide antzezlanaren".



Larunbat honetan Sutegin, 18:00etan hasita.

Maite Aizpurua, Ainhoa Alberdi, Idoia Beratarbide, Iraia Elias eta Idoia Hernandez "Hatxe" aktore taldea du partaide antzezlanak. Haietako bi dira zuzendariek; Beratarbide eta Elias.

## "Apaiz Kartzela" dokumentala

Abadeentzako munduko kartzela bakarrean jazotakoa kontatzen du Ritxi Lizartzak, David Pallaresek eta Oier Aranzabalek zuzenduriko ikus-entzunezkoak. Frankismoaren errepresioa salatu zuten Zamorako apaizen kartzelan preso egondako lau abade presondegi horretara itzultzen dira. "Ezezaguna den istorio hau

berreskuratzeko bidaia" kontatzen digu "Apaiz Kartzela" dokumentalak. Usurbilgo Udalak urtarrilaren 30ean proiektatuko du 18:00etan Sutegin. Sarrerak 5 eurotan aurrez eskura daitezke usurbilkultura.eus plataforman. Ikus-entzunezkoaren zuzendari eta protagonista batekin solasaldia izango da gero.

### Datozenak

#### Desazkundeari buruzko hitzaldia Sutegin

Krisi ekosoziala da gure garaiko datu funtsezkoa. Goitik behera baldintzaturiko ditu gure biografiak, komunitateak, jendarteak, mundua. Honi buruz arituko da Joseba Azkarraga EHUko irakasle eta ikertzailea.

■ Urtarrilak 27 osteguna, 18:30ean Sutegin.

■ Sarrera: doan, baina tokia hartu behar da usurbilkultura.eus web orrian.

■ Antolatzailea: Anerreka elkarte.

#### Sareren mobilizazioa

Hilero azken ostiralero egiten duten moduan, urtarrilaren 28an, euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko elkarretaratzea Sarek deituta, iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

#### Dorsalak agortuak

Mendi bizikleta ginean Andatzari itzulia emateko aukera urtarrilaren 30ean, Irisasi BT-ren "Hotzak Akabatzen" probari esker. Dorsalak agortu direla ohartarazi du antolakuntzak. Beraz ez alde aurretik ezta proba egunean ezingo da izena eman. Igan-de horretan goizeko 9:00etan abiatuko dira parte hartzaileak Mikel Laboa plazatik.

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

*Usurbil Autoak*  
**MEKANIKA-KARROZERIA**



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

ARRANDEGIA  
**PELLO**

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI!  
650 31 31 91 USURBIL



# BEH ERA PEN-en zozketa



Irabazi **200 €**-ko opari-  
txartela eta Eva Linazasoro  
**Personal Shopper**-arekin  
saio bat.



Parte hartzeko informazio gehiago [www.urbil.es](http://www.urbil.es) -en edo Bezeroaren Arretarako Gunean.

BLOG f t i

 **urbil**

[urbil.es](http://urbil.es)



### *Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:*

- **0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.**
- Hezkuntza Integrala: Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen-erritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **Baso eskola:** basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **ZIRIMARA** aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake eta an-tzerkia.
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

*54 urteko esperientzia Usurbilen.*

**Matrikulatzeko epea** (3 urtetik-16 urtera)  
**Urtarrilaren 17tik 28ra** (biak barne)

**HAUR HEZKUNTZA:** 3 - 6  
**LEHEN HEZKUNTZA:** 6 - 12  
**DBH:** 12 - 16



**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus)